



ARRASATE PRESS

Fruta eta barazki erakusketa eta lehiaketa izango da goizean Biteri aparkalekuan.

Jaia eta sustraiak

Girorik eta jenderik ez da faltako bihar

Gaiteroen eta txistularien diana entzun ostean, giroa pizten hasiko da bihar Arrasaten, eta jendea pixkanaka biltzen. Fruta eta barazki erakusketa eta lehiaketa zabalduko dute, gazten lehiaketa, hegaztien erakusketa, txotx jaia, ganadu feria, eskulangileen erakusketa, antzinako tresnen erakusketa eta herri kirol erakustaldia hasi, eta erdigunea jendez gainezka izango da

berehala, azoka plazatik Jokin Zaitegi plazaraino. Bazkalordurako husten hasiko dira kaleak; hainbatek etxerako bidea hartuko dute, eta beste zenbait Uarkape pilotalekura joango dira, herri bazkari-urtero bezala, ehunka lagun bilduko dira bazkaritara. Ondoren, antzerkia, dantza, bertsoak eta musika izango dira, eta txerri zozketarekin amaituko da eguna.

Hainbat berrikuntza izango dira egitarauan: txotx gunea, herri kirol erakustaldia eta antzinako baserri tresnen erakusketa, hain zuzen. Jaiak eta euskal sustraiak bat egingo dute santamasetan. Horixe baita Santamas Komisiñuaren asmoa: «Pozik gaude Arrasate alaitsuago, bere kulturaren gero ta sustraituago eta euskaldunago egiteko ahaleginean parte hartzen gabiltzalako».

egitaraua

Abenduak 21, osteguna

- 19:00 Etxaferoak.
- 19:00 Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsa.
- 19:00 Santamasetako txerriaren aurkezpena eta zozketa txartelen salmenta.
- 19:30 Incansables txarangaren kalejira.
- 22:30 Pilota partida, Uarkape udal pilotalekuan.
- 23:00 Akelarre taldearekin dantzaldia, Herriko plazan.
- 24:00 Zezensuzkoa, Herriko plazan.

Abenduak 22, ostirala

- 09:30 Arrasateko gaiteroekin eta txistulariekin diana.
- 10:00 Fruta eta barazki erakusketa eta lehiaketa, Biteri aparkalekuan.
- Euskal Herrian eskuz egindako gazten lehiaketa, Eskualdeko II. Ezti Lehiaketa, eta hegaztien erakusketa, Azoka plazan.
- Txotx jaia eta taloak, Herriko plazan.
- Debagoieneko ganadu feria, Laubide plazan. Laguntzaileak: Kutxa eta Euskadiko Kutxa.
- 10:30 Artisanu langintzaren jarduerak eta erakusketa, Jokin Zaitegi plazan.
- Arrasateko baserrietako lanekin eta ohiturekin loturiko antzinako tresnen erakusketa zabalduko da Garibai etorbidean.
- 11:00 Herri kirol erakustaldia, Laubide Plazan.
- 11:30 Kalejira: Arrasateko Txistulariak, Arrasateko Gaiteroak, Txikitxu-Arrostaitz dantza taldea, Lore Gazteak dantza taldea, Arrasateko Trikitilariak, Iturengo Ttunturruak eta Incansables txaranga.
- 11:30 Fruta, barazki gazta eta ezti lehiaketen sari banaketa, Biterin.

- 12:30 Lore Gazteak dantza taldea, Herriko plazan.
- Santamas Aizkolari Txapelketa bina-kako Urrezko Aizkora Txapelketa barruan, Zaldibarren. Aizkolariak: Olsagasti, Arrospide, Mindegia eta Larretxea.
- 13:00 Goenatxo harri-jasotzailea, Zaldibarren.
- Arrasateko Trikitilariak, Herriko plazan.
- 13:30 Arrostaitz dantza taldea, Herriko plazan.
- 14:00 Txerri dantza herrikoia, Herriko plazan.
- 14:30 Herri bazkaria, Uarkape pilotalekuan. Txartelak salgai: AED, Hire liburu denda, eta Biona eta Monte tabernetan.
- 15:30 Lantegiak umeentzat, Uarkape pilotalekuan.
- 17:30 Goloka taldearen *Sorginak* kale antzerkia, Herriko plaza inguruan. Eguraldi txarra eginez gero, Gazteluondoko kiroldegian.
- 19:00 Txerri dantza eta Larraín dantza, Herriko plazan.
- 20:00 Bertso saioa, Amaia antzokian. Partaideak: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Igor Elortza, Estitxu Arozena eta Xabier Silveira.
- 23:00 Irailerako 6 taldearekin dantzaldia, Herriko plazan.
- 24:00 Txerri zozketa, Herriko plazan.

Abenduak 24, domeka

- 12:00 Txoronpio eta Txoronpia, Olentzeroren Arrasateko lagunaren irteera.
- 18:00 Olentzeroren irteera, Zaldibartik.
- 19:30 Herriko plazan, Olentzeroren agurra, mutil dantza eta herri dantza.

ETXERAT
Taberna

BASATI
Taberna

GARIBAI
Taberna

IRATI
Taberna

2000

SANTAMASAK

ITURRIOTZ
Taberna

BIONA
Taberna

ARRASATE

ILUNTZ
Taberna

KIMETZ
Taberna

JAI ZALE
Taberna

EKAITZ
Taberna